



161

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

162

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

163

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

164

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

165

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

166

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

167

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

168

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

169

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

170

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

171

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

172

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

173

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

174

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

175

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

176

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

177

J. R.

HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS

178


J. R.


HARRIS

AND

J. M.

WILLIAMS





M-9908
R-4379

Vici bedi Jesus.

A.T.
181

CRISTAU- DOTRINA



EÑETAN ERACUS
en baitire gure Fede San-
duco gauzaric bear-
rénac.

ITA ASTETEC ER-
deraz, eta orai

AFARROACO EUSCA-
a izarrae adirazten duena
erantsiric, aterateen du

Fr. PEDRO ANTONIO
Míbarro, Zarauzco Cole-
gioco Misionista, Aita S.
Franciscoren Ordeakoag.

BEAR BEZALA.

Iruñean: Josef Rada-rén
Echean.

Utzi ezazu becatarie
 Lén baño lén becatue
 Aparta zaite ocasiotic
 Cefietan zauden sartue
Guerta diteque gaur arra
 seen
 Zure goatcean iltcee,
 Bai eta ere , biar baño l
 Infernuetan sartcee.
Utcí ditzagun vicio aicc,
 Ceñéc gauzqueten galde
 ric,
 Eta escaru barcacioa
 Jaungoicoari bertatic.
Liburu onetan erraten de
 Siñestatu , ta eguizu,
 Goza dezazun beti Lon
 An zaitecen descansat

VICI BEDI JESUS.

Gurutce  Sanduaren
 Señalea gatic
 gure  etsaietatic
 libra gaitzatzu
 gure Jauna , ta Jangoicoa.
 Aitaren, ta Semearen, 
 ta Espiritu Sanduaren
 icenean. Amen.

AITA GUREA.

Aita gurea Ceruétan zaudena, santifica bedi zure
 Icena; betor gugana zure Erreinua; egun bedi zure vorondatea Ceruan bezala, lur-
 rean ere. Egun eman dizaguzu gueren egunoroko
 oguia; eta barca dizquigut-
 zu gure zorrac, guc gue-
 ten zordunei barcatzen diz-
 quiegun bezala: Eta ez
 gaitzatzula utci tentacioan
 erortcen: baicic libra gait-
 zatzu gaitcetic. Amen.

Jangoicoac salva zaizai
Maria graciaz betea, Jaun
da zurequi, bedeicatua cer
Zu andre gucien artean ; et
bedeicatua da Zure sableedo
frutua Jesus. Santa Maria
Jangoicoaren Ama otoi
eguizu gu becatarien gatia
orai, ta gure eriotzaco or
duan. Amen Jesus.

CREDOA.

Sinistatcen dut gucia de
zaquican Aita Jangoico, Ce
ruaren, ta lurraren Creat
zallea baitan; eta aren Se
me bacar Jesu-Cristo gu
re Jauna baitan, cein sort
cen Espiritu Sandaren egui
tez, ta graciaz; jaio cen
Maria Virgiña ganic. Pade
citu zuen Poncio Pilatos
en manuaren azpian. Gu
rutcean josia, illa ta ortzi
izan cen. Jautsi cen Infer

nuétara. Biztu cen irugarren egunean illén artetic. Igan cen Ceruétara ; an dago jarriñc Aita Jangoico gucia dezaquearen escuñeco aldean. Andic etorrico da viciet, ta illéc juzgatcera. Sinistatcen dut Espiritu Sandua baitan. Eliza Ama Sandu Catolicoa. Sanduén Comunioa. Becatuén barcamendue. Ara-guiaren piztcea. Eta vicitce beticoa. Amen.

SALVE A.

Jangoicoac salva zaizala Erreguiña: Urricaritasunaren Ama : gure vicitce , eztitassune , ta esperanza. Jangoicoac salva zaizala. Zure diez gaudé Evaten ume desterratiuac ; zuregana gaude suspirioz , adiez , ta nigarrez errí nigarrezco onetan. Ea bada arren , Bitarteko gurea , itzuli itzatzu gure dana zure begui urricarizco

oricc. Eta desterru onen ondoan eracutsizaguzu Jesus, zure sabeleco frutu bedeicatua. O biotz beraa! O urricaritsua! O Maria Virgena eztia! Jangoicoaren Ama Santa otoitz eguizu gu gatic, Jesu Cristoren esqueñiac erdiesteco diña izan gaitecen. Amen Jesus.

JANGOICOAREN LEGUECO MANDAMENTUAC.

Jangoicoaren Legueco Mandamentua dire amar. Lembicico irurac Jangoicoaren onrari dagozquionac ; ta bertce zazpiac lagun progrimoaren onari.

Lembicicoa, Jangoicoa gauza gucien gañean onétsitcea.

Bigarrena , aren icen sanduaz juramentu alferric ez eguitea.

Irugarraena , Igandeac , ta

bertce Jaiac guardatcea,
edo sandutcea.

Laugarrena, Gurasoac on-
ratcea.

Bortzgarrena, nior ez ilt-
cea.

Seigarrena, araguizco beca-
turič ez eguitea.


Zazpigarrena, ez ebastea.

Zorzigarrena, eguiñ eztuen
gauzaric niori ez alchat-
cea; ez guezurric erratea.

Bederatcigarrena, lagunaren
Emazteric, ez Senarric ez
deseatcea.

Amargarrena, lagunaren
ondasun bide gabecoric ez
cuticiatcea, edo deseatcea.

Amar mandamentu oieč bi-
tan sartcen dire, Jangoi-
coa serbitzatzcen, eta mai-
tatcean gauza gucien ga-
ñean; ta progimo laguna
cere burua bezala.



FEDECO ARTICU-
luac , edo Sinesmenac.

Fedearen Articuluac dire amalaur : lembicico zazpiac Jangoicot asunari dagozquier nac ; ta bertze zazpiac Je-su Cristo gure Jaun , Jangoico ta Guizon eguiaz-coaren Guizatasun Sanduari.

Jangoicot asunari dagozquier nac dire oite.

Lembicicoa , sinistatcea Jangoico bat bacar gucia dezaquenaren baitan.

Bigarraena , sinistatcea , dela Aita.

Irugarrena , sinistatcea dela Semea.

Laugarrena , sinistatcea dela Espíritu Sandua.

Bortzgarrena , sinistatcea dela gauza gucien Eguilea.

Seigarrena, sinistatcea de la Salvatzallea.

Zazpigarrena, sinistatcea dela Gloria emalcea.

Guizontasun Sanduari dagozquionas dire oies.

L Embicicoa, sinistatcea Jesu-Cristo gure Jauna, guizona danez, sortua izan cela Espíritu Sanduaren egitez, ta graciáz.

Bigarrena, sinistatcea jaio cela María Virgiña ganic; guelditcen celaric du Doncella, erdi baño len, erditcean, ta erdiz gueroz.

Irugarrena, sinistatcea, eriotza, ta neque andiac artu cituela, gu becatoreac salvatcea gatic.

Laugarrena, sinistatcea infernuetara jautsi cela, eta bere etorrera sanduaren beguira ceuden Sanduen Arimac atera cituela.

Bortzgarrena, sinistatcea,

irugarren egunean illeen artetic biztu cela.

Seigarrena, sinistatcea, igan cela Ceruetara, ta an dagoala jarriric Aita Jangoico gucia dezaquean escuneco aldean.

Zazpigarrena, sinistatcea, etorrigo dela, viciac, ta illac juzgatcera; onai emateco betiko gloria, ceren bere Mandamentu sanduac guardatu cituzten; eta gaitozi betiko infernua, ceren guardatu etcituzten.

DOTRINA ERACUS-
ten da Galdetuz, ta Er-
respondatuz.

*G*aldetzen dut: Cristioa cera?

Errespondatzen dut: Bai Jangoicoaren graciaz.

G. Cristioaren icen ori no-reganic duzu?

E. Jesu-Cristo gure Jau-

na ganic.

G. Cer erran nai du Cris-
tioac?

E. Cristoren Guizona.

G. Cristoren Guizonaz cer
aditcen duzu?

E. Jesu-Christoren fedea,
edo sinistatcea duena cein
Bataioan artu baitzuen;
eta bera serbitzatcera es-
queñeric dagoena.

G. Cristioaren señalea ceinda?

E. Gurutce Sandua.

G. Cergatic?

E. Ceren Cristo Gurut-
cean josiaren iduria den,
ceñetan erosi baiguinducen.

G. Cembat guisatara señale
ori Cristioac eguiten du?

E. Bitara.

G. Cein dire?

E. Cefiatcea, ta santiguatzea.

G. Cer da cefiatcea?

E. Escuñeco beatz Iodiaz
irur Gurutce eguitea.

Lembicicona copetan : Bi-
garrena agoan : *Irugar-rena* bularrean, gure Jan.

goicoarequi mintzatzen
garelaric.

G. Ea nola?

E. Gurutce sanduaren seña-
lea gatic gure etsaietatic
libra gaitzatzu gure Jau-
na, ta Jangoicoa.

G. Cergatic ceñatzen cera
copetan?

E. Jangoicoac pensamentu
gaistoetatic libra gaitzan.

G. Cergatic agoan?

E. Itz gaistoetatic Jangoi-
coac libra gaitzan.

G. Cergatic bularrean?

E. Eguíte, ta desciu gais-
toetatic Jangoicoac libra
gaitzan.

G. Cer da santiguatcea, edo
Aitaren eguitea?

E. Escuñeco bi beatzaqui
Gurutce bat eguitea co-
petatic bularerra, ta ez-
querreco soinetik escuñec-
cora Trinitate guciz San-
duari gagozquiola, edo
mintzacen garela.

G. Eracutsi nola?

- E. Aitaren , ta Semearen,
ta Espiritu Sandaren Ige-
nean : Amen.
- G. Gurutce ori noiz egunez
bear duzu?
- E. Lanen bat asitzen dugun
gucian , premia , tentacio,
edo perillean icasten gue-
ranean : Batez-era oatec-
tic jaiquitcean , echetic
ateratcean , Elizan sart-
cean , jatorduan , ta oar-
ceracoan.
- G. Cergatic aimbertetan?
- E. Ceren beti , ta leku gu-
cietan gure etsaiak tentat-
zen , ta perseguitzen bai-
gaituzte.
- G. Cer etsai dire oriec?
- E. Demonioa , Malandua , ta
Araguia.
- G. Beraz oien contra Gurut-
ceac indarra du ?
- E. Bai Jauna.
- G. Virtute ori Gurutceac
nondic du ?
- E. Ceren Jesu-Christoq be-
re eriotzaz artan garaitu

cituen.

G. Gurutcea adoratcean nola erraten duzu?

E. Adoratcen, ta bedeicatcen zaitugu, Cristo, cernen zure Gurutce Sanduarequi erredimitu, ta libratu baitcenduan mundua.

CRISTIO-DOTRINA ren divisioa, edo berreciera.

*I*Cusi dugu Cristioa etrala, ala icenean, nola siñalean: erran zadaz orai:

G. Cristioa adimentura, edo ezaguerara datorrenean cemba gáuza jaquiter dago bearturic?

E. Laur gauza.

G. Cein dire?

E. 1. Cer sinistatu: 2. cer escatu: 3. cer eguna: 4. ta cer artu bear duan, jaquitea.

G. Nola jaquinen du, cer

- sinistu bear duan?
- E. Credoia, edo Articulu fedecoac jaquiñaz.
- G. Nola jaquinen du, cer escatu bear duan?
- E. Aita gurea, ta Elizaren bertce Oracioac jaquiñaz.
- G. Nola jaquinen du, cer eguin bear duan?
- E. Jangoicoaren Legueco amar Mandamentuac, Eliza Ama Sanduaren bortzac, ta Misericordiazco Obrac jaquiñaz.
- G. Nola jaquinen du cer artu bear duan?
- E. Eliza Ama Sanduaren zazpi Sacramentuac jaquiñaz.
-

*DOCTRINAREN
lembiciso Zatia, ceñetan Credoia, edo Fedeco Articulóac
azaltzen, ta adirazten baitira.*

G. Errazu: Credoia norc
A4

E. Erran zuen?

G. Apostoluac.

G. Certaco?

E. Fedearen gáuzac guri adierazitceo.

G. Eta zuc certaco erraten duzu?

E. Cristioac dugun fede, edo sinistatce au berau aitortceco.

G. Cer da fedea?

E. Icusi eztuguna sinistatcea.

G. Jesu-Christo jaiotcen icusi cenduen?

E. Ez, Jaune.

G. Iltcen, edo Ceruetarat igaten icusi cenuen?

E. Ez, Jaune.

G. Sinistatcen duzu?

E. Bai, Jaune, sinisten dut.

G. Cergatic sinistatcen duzu?

E. Ceten gure Jangoicoac ala aguertu baitio Eliza Ama Sanduari, eta onen ala eracusten baitigu.

G. Cristioac bezala dauzcatzun, ta sinistatcen dituzun gáuzac ceñ dire?

- E. Errromaco Eliza Ama Sanduac dauzcanac, ta sinistatcen dituenac.
- G. Arc, eta zuc sinistatcen dituzuenac cer gauza dire?
- E. Fedeco Articuluac, batez ere Credoan dauden bezala.
- G. Fedeco Articuluac cer dire?
- E. Aren Misterio, edo sinisgairic andienac, ta miringarriena.
- G. Fedearen Articuluac certako dire?
- E. Gure Jangoicoaren, ta Jesu-Cristo gure Erredentorearen berri beressi, sedo iracortia emateko.
- G. Cer, edo cein da gure Jangoicoa?
- E. Da erran, ta gogora al ditequeen gauzaric goienen, edo andien, ta miringarria, Jaun bat ecin guxiagoan óna, gucia dezaquien, jaquintsua, zuccena, gauza gucien asie-

- ra, ta azquena.
- G. Trinitate edo Irutasun
guciz Sandua cer da?
- E. Da Jangoicoa bera, Aita,
Semea, ta Espiritu
Sandua: irur Persona dis-
tinto, edo beressiac; ta
Jangoico eguiazco bacar
bat.
- G. Aita Jongoicoa da?
- E. Bai, Jaune.
- G. Semea Jangoicoa da?
- E. Bai, Jaune.
- G. Espiritu Sandua Jangoi-
coa da?
- E. Bai, Jaune.
- G. Irur Jangoico dire?
- E. Ez; baicic eguiazco Jan-
goico bacar bat.
- G. Aita Semea da?
- E. Ez Jaune.
- G. Espiritu Sandua Aita,
edo Semea da?
- E. Ez, Jaune.
- G. Cergatic?
- E. Ceren irur Persónac ba-
naac diren, izan arren Jan-
goico eguiazco bacar bat.

- G. Jangoicoa nola da gu-
ciz *Poderosoa*?
- E. Ceren bere naiarequi ba-
carric nai duen gucia
eguiten duen.
- G. Nola da *Eguillea*, edo
Creatzallea?
- E. Ceren ez deustic gauza
guciee eguin baitcituen.
- G. Nola da *Salvatzallea*?
- E. Ceren becatuac barcatu,
ta gracia ematen duen.
- G. Nola da *Glorificatzallea*,
edo *Gloria-emallea*?
- E. Ceren beraren gracian di-
rauenari gloria ematen
dion.
- G. Jangoicoac, gu bezala,
gorputzaren iduriric ba-
du?
- E. Jangoicoa danez ez, ce-
ren Espiritu uts garbia
den; bafia bai Guizona
den becen batean.
- G. Jangoicozco irur Perso-
netaric cein eguin cen
Guizon?
- E. Bigarrena, cein baita Se-
mea.

- G. Aita eguin cen Guizon?
 E. Ez, Jaunde.
 G. Espiritu Sandua eguin
 cen Guizon?
 E. Ez, Jaune.
 G. Cein bada?
 E. Bacarric Semea, cein
 Guizon eguin, ta deit-
 cen baita Jesu-Cristo.
 G. * Eta non eguin ces
 Guizon?
 E. * Ama Virgíñaren Sa-
 bel Sanduan.
 G. * Eta Guizon eguin ce-
 nean, utci, edo galdu or-
 zuen Jangoico izatea?
 E. * Ez, etzuen galdu, t-
 ecin galdu cezaquean; eti
 orregatic dembora berean-
 da Jangoico, ta Guizon
 eguiazcoa.
 G. * Noren obraz eguin ces
 Misterio miragarri zu?
 E. * Ez guizonaren, baide
 Espiritu Sanduaren obra
 ta graciaz.
 G. * Cer eguin zuen Espi-
 ritu Sanduac?

E. * Laur gáuza.

G. * Cein dire?

1. *Lembicicoa*, Maria Virgiñaren odol chau garbiaz, ta Virgiña beraren Sabelean moldatu zuen Gorputz bat.

2. *Bigarraña*; deus-ecertic eguin zuen Arima bat.

3. *Irugarraña*, Arima au iuntatu, edo unitu baicion Gorputzari, eta orra Guizatasuna.

4. *Laugarrena*, Gorputz, ta Arima au artu cituen bigarren Persona, edo Semiac beregana; ta len bæcarric Jangoicoa cena, guelditu cen Jangoico, ta Guizoneguijazcoa eguiñic.

G. * Cembat naturaleza, edo izate ditu Jesu-Cristoc?

E. * Bida, Jangoicoarena bata, Guizonarena bertcea.

G. * Cembat adimentu, ta borondate?

E. * Bida, Jangoicoa danez bata, Guízona danez bertcea.

G. * Cembañ memoria?

E. * Bat, ta au Guizona den aldetic; bada Jangoicoa danez gauza guciac dauzca aitcinian, ta eztu memoriaren bearri.

G. * Cembañ Presuna dite Jesu Cristo baitan?

E. * Presuna bat bacarra, ta ori Trinitateko bigarrena, edo Seme Jangoicoa.

G. * Jesu-Cristoc badu Aitaric, edo Amaric?

E. * Jangoicoa danez badu Aita, ceña dan Aita eterno; ta eztu Amaric. Guizona danez badu Ama, ceña dan María beti Doncella, ta ez du Aitaric.

G. * Non dago Jesu-Cristo?

E. Jangoicoa den becen baitan lecu gucietan; baña Guizona danez Ceruan, ta Aldarocco Sacramentuan bacarric.

G. * Orreka beraz nor da Jesu-Cristo?

E. * Da Jangoico biciaren

Semea , gu erredimitcea
gatic , ta guri vicitcece
moldea eracustea gatic
Guizon eguin cena.

G. Cer erran nai du Jesu-
sen icenac?

E. Salvatzallea.

G. Certatic salvatu guindu-
cen?

E. Gure becatuetaric , ta de-
monioaren mendetic.

G. Cristoc cer erran nai du?

E. Unguitua , edo ganzutua.

G. Certzaz ungitua izan cen?

E. Espiritu Sanduaren gra-
ciaz , ta doaiaz.

G. Jesu-Cristo gure Jauna,
Virgiña cen Ama ganic
Doncellatasuna galdu ba-
gue , nola sortu , ta jaio
cen?

E. Eguiten zuela onetan Jan-
goicoac guerez gañeco mi-
lagro andi bat.

G. Aten Ama guero beti
Virgiña , edo Doncella
garbia guelditu cen?

E. Bai , beti betiro.

- G.** Cergatic Gurutceco eriotza artu nai izan zuen?
- E.** Gu becatutic, ta eriotzatik libratcea gatic.
- G.** Jesu-Cristo ill ondoan jautsi cen Infernuaz cerauditzen duzu?
- E.** Ez condenatuen toquia, baicic Arima ónac ceuden Limboa deritzan lecua.
- G.** Nola jautsi cen?
- E.** Arimaz Jangoicotatasunari juntaturic.
- G.** Ta aren Gorputza nola guelditu cen?
- E.** Jangoicotatasunari berari unituric.
- G.** Irugarren egunean nola biztu cen?
- E.** Aren Gorputz, ta Arima gloriaz betea berriz juntatzen cirelaric, bein ere ez iltzeco.
- G.** Ceructara nola igan cen?
- E.** Bere berezko vertutez.
- G.** Aita Jangoicoaren escuinean jarriric egoteac certran nai du?

E. Jangoicoa denez Aitac adimbat gloria izatea, eta Guizon becimbatean niore ere baino gueiago.

G. Noiz etorrico da viciac, ta illac juzgatcera?

E. Munduaren azquenean, edo Juicioco egunean.

G. Eta orduan ill guciac biztu bear dute?

E. Bai, Jaune, beren gorputz, ta arima len cituztenequi.

G. * Cer sinistatcen duzu erraten duzunean: *Sinisten dut Espiritu Sandua baitan?*

E. * Sinistatcen dut Trinidatdeko irugarren Presuna deitcen dela Espiritu Sandua, eta dela ain Jangoico nola Aita, ta Semea.

G. Cer, edo ein da Eliza?

E. Da Cristio fededun guciac batetako arturiko egutien duen gorputza, cefeen Burua baita Aita

Sandua.

- G. Aita Sandua nor da?
- E. Da Errromaco Apez Nagusia, lurrean Cristoren ordecoa, cehi obeditcera gucioc obligaturic bai-cauden.

G. *Sanduen Comunioa* sinistateen dut, erratean, cer sinisten duzu?

E. Cristio fielac bertseen eguiite onetan, arimeco ondasunétan parteletasuna dutela, gorputz baten zatiac izanic, cein baita Eliza.

G. * Cer sinistatcen duzu, erraten duzunean: sinistatcen dut *Becatuuen barcamendua*?

E. * Sinistatcen dut, Elizan badirela erremedioac, gure becatuec barcatececo.

G. * Cer adirazten duzu, errateaz, sinistatcen dut *Araguiaren piztcea*?

E. * Sjnistatcen dut, azquen juicioco egunean gucioc

piztuko guerala, ta aguer-tuco guerala Jangoicoaren aitçinera, berari kontu ertsia emateco.

G.* Cer erran nai du : *Bicitza beticoac?*

E.* Onetan sinistatcen dugu, bicitza onen ondoan izanen dela bertce bicitza beti iraunen duen bat: ónac betico Ceruan, ta gaistóac betico infernuan egonen diréla.

G. Credoaz, edo Articuluaz landara bertceric sinistatcen duzu ?

E. Bai, Jaune, Escritura Sanduan dagoen gucia, ta Jangoicesc bere Elizari aguertu dion gucia.

G. Cer gáuza dire oriee :

E. Ori ez niri galde, eeren níc eztaquit. Eliza Ama Sanduáac Masisúac baditu errespondatcen jaquiñen dutenac.

Maissua: Ongui diozu, Era-cusleai dagote, ez zuri,

fedeco gauceetan cheago,
ta luceago contu ematca.
Asqui da zuretzat Arti-
culuen contua, Credoan
dagoan bezala ematea.

DOTRINAREN BI-
*garren Zatia, ceinetan adie-
razten den, escatu bear de-
na, ta Eliza Ama San-
duaren Oraciōdē.*

Iesusi dugu, nola daqui-
zun sinistatu bear dena
lembicico Zatian; bigar-
renera gatocen, ta dacus-
cun nola daquizun esca-
tu bear dena.

G. Errazu : *Aita gurea
norc erran zuen?*

E. Jesu-Cristoc.

G. Certaco?

E. Otoitz eguiten guri era-
custeco.

G. Cer da otoitz eguitea?

E. Da Jangoicoa gana biot-
za albatcea, ta ari me-

sedéac escatcea.

G. *Aita gurua* erratean no-
requi mintzo cera?

E. Gure Jaun Jangoicoa-
requi.

G. Non dago gure Jangoi-
coa?

E. Lecu guciétan, batez ere
Ceruan, ta Aldareko Sa-
cramentu Sanduan.

G. Oracio gucien artean
onena cein da?

E. Pater noster, edo *Aita
gurua*.

G. Cergatic?

E. Ceran Jesu-Cristoc be-
re agoz erran zuen, Apos-
toluáic escaturic.

G. Cergatic gueiago?

E. Ceran zazpi peticio, edo
escari caritatetic datoccé-
nac baitituen.

G. Cein dire?

E. Lembicicoa, *Santifica
bedi zure Icena*.

G. Cer escatcen duzu esca-
ri orreta?

E. Jangoicoaren Icena mun-

du gucian ezagutua, ta onratua izan dedilla.

G. Cein da bigarrena?

E. *Betor gugana zure Erreinua.*

G. Cer escatcen duzu esca-
bide orretan?

E. Gure Arimétan Jangoi-
coac erreinatu, manatu, ta aguindu decela graziaz
emen lurrean; ta guero
bere gloria digula.

G. Cein da irugarrena?

E. *Eguin bedi zure boron-
datea Ceruan bezala, lur-
rean ere.*

G. Cer escatcen duzu esca-
ri orretan?

E. Lurrean gaudenoc Jangoikoaren borondatea da-
guigula, Ceruan Zorio-
necoac eguiten duten be-
zala,

G. Cein da laugarrena?

E. *Egun eman dizaguzu
guerets egunoroko ogia.*

G. Cer escatcen duzu esca-
ri orretan?

E. Gorputzari dagocan mantenua Jangoicoac digula; ta Arimentzat gracia, ta Sacramentúac.

G. Cein da bortzgarrena?

E. *Barca dizquigutzu gueren zorrac, gue gueren zordunéi barcatzen dizquiegun bezala.*

G. Cer escatcen duzu escari orretan?

E. Gure becatúac Jangoicoac barca deguizquiigua, gue gueren gaizquillei barcatcen diezteguin bezala.

G. Cein da seigarrena?

E. *Ez gaitzatzula utzi tentacioan erortzen.*

G. Cer escatcen duzu escari orretan?

E. Ez caitzala utci Jangoicoac becatuan, eta deabruaren escuetan erortcea, eta aren tentacioetan consentitcera.

G. Cein da zazpigarrena?

E. *Baicic libra gaitzatzu gaitcetic.*

G. Cer escatcen duzu esca-
ri orretan?

E. Jangoicaoc libra gaitza-
la Arimaco; ta Gorput-
ceco gaitz ta pelligru gu-
cietatic.

G. Cergatic asietan erran
duzu: *Aita gurta Cerue-
tan zaudena?*

E. Jangoicoa gana biotza
alchatceco, ta umiltasu-
naz, eta uste beteaz me-
sedéac berari escatceco.

G. Amen, azqueneco itzac-
cer erran nai du?

E. Ala izan dedilla.

G. Ccin dire Ama Virgiñia-
ri otoitz eguiteco oracio-
nic onenac?

E. *Ave María*, ta *Salvea*.

G. Ave María norc erran
zuen?

E. San Gabriel Áingueraúc
Ama Virgíñari berri ónac
ematera etorri zanean.

G. Norc erran zuen *Salvea*?

E. Eliza Ama Sanduac dau-
ca berctua.

G. Certaco?

E. Ama Virgiñari mese-deat escatocco.

G. *Ave Maria*, edo *Sal-va erraten duzunean no-ri mintzatcen diozu?*

E. Maria Virgiña gure Ama Andreari.

G. Virgiña Ama Maria nor da?

E. Da vertutez beterico Andre bat, Jangoikoaren Ama, ta Ceruan dagoana.

G. Eta Aldarean dagoana nor da?

E. Ceruan dagoanaren iduri bat, ta aren antza dueña.

G. Certaco dago an?

E. Aren bidez Ceruan da goenaz oroitu gaitecen, ta beraren antz-iduria, edo Imagiña ceren den erreverencia daguio gun.

Maissua: Bada bertze Sanduen Imagiñeit orobat eguin bear diezu.

G. Ainguueruei, ta Sanduei ere otoitz eguin bear

diegu?

E. Bai, Jaune, gure Bitartecóai bezala.

G. Cer gauza dire Aingueruec?

E. Aingueruec dire gorputz gabeco Ispiritu uts zorioneco batzuec, Jangoicoa gozatcen Ceruen daudénac.

G. Jangoico gure Jaunac certaco ecerecetic eguiñ cituen?

E. Bera beti alabatceco, ta bedicatceco.

G. Eta certaco gueiago?

E. Bere Serbitzarieci bezala Eliza gobernatceco, ta persónac goardatceco.

G. Beraz zuc ere baduzu goardatcen zaituen Ainguerue?

E. Bai, badut, ta persóna bacoitzac du berea.

Maissua: Bada devocio andie izan zaiozu, ta gomenda zaquizquio egunoro.

*IRUGARREN ZATIA
eñetan adirazten den egun
bear dena.*

Icusi dugu cer sinistatu, ta escatu bear den : Dacuscun nola daquizun cer egun bear den.

G. Errazu : Jangoicoaren Legueco lembicico Mandamentua cein da?

E. *Jangoicoa gauce guciek gañean onetsi, edo mai-tetcea.*

G. Norc onetsitcen du Jangoicoa?

E. Aren Mandamentuek guardatcen dituenak.

G. Cer da gauce gucien gañean onetsitcea?

E. Gauce guciek galtcea naiago izatea, bera ofenditu baño.

C. Certara gueiago Mandamentu onec beartcen gaitu?

E. Bera bacarric Gorputz ta Arimeco eguin álaz adoratcera, sinistatcen, ta esperatcen dugularic aren baitan fede bici batequi.

G. Norc onetan uts eguiten du?

E. Escuz eguiñicaco Ídolo, edo Jainco guezurrezcoac adorateen dituenac, edo orietan sinistatcen duenac.

G. Norc gueiago?

E. Sorquinqueria, aztia, etorquizun amesezcoai, eta onelaco bide gabeko sínisteak ematen dienac, eta echiceriaz baliatcen baitira.

G. Cein da bigarren Mandamentua?

E. *Aren Icen Sanduaz juramentu alferric ez eguita.*

G. Norc juramentu alferric eguiten dute?

E. Eguia gabe, justicia gabe, edo justu ta cillégi eztan gauzaren gañean,

- eta premia gabe eguiten dutenac.
- G. Eta deusi ez dagoquio-la, edo alferric criaturac gatic juramendu eguitea, becatu da?
- E. Bai, Jaune, ceren aietan Jangoico berén Eguilleari eguiten baitzaio.
- G. Juramenduric alferric ez eguiteco cer bide da?
- E. Oitutcea erratera bai, edo ez, Cristoc eracusten digun bezala.
- G. Cein da irurgarrena?
- E. Igande, ta bertce Jai-egunac guardatcea.
- G. Igande, ta bertce Jaiac norc guardatcen ditu?
- E. Meza osoa enzun, Janbearric premia gabe eguiten eztuenac, ta Jaia Jangoicoaren gauceetan ematen duenac.
- G. Cein da laugarrena?
- E. Gurasbaic onratzea.
- G. Norc onratcen ditu Guatasbaic?

- E.** Obeditcen, maitetcen, laguntcen, ta errespetatcen dituztenac.
- G.** Norc bertceric Gurasoen icenez aditcen dire?
- E.** Adinean, onran, ta gobernuan, Nagusiagóac direnac.
- G.** Cein da bortzgarrena?
- E.** Ez nior iltzea.
- G.** Mandamentu onetan cer manatcen da?
- E.** Niori gaitzic ez eguitea, ez egitez, ez mintzaz, ez eta gogoz ere.
- G.** Cein da seigarrena?
- E.** Araguizco becaturic, edo desonezqueriacoric ez egitea.
- G.** Cer manatcen zaigu onetan?
- E.** Garbiac, ta castoac izan gaitecela gogo, mintzura, eguite, ta naicundectaran.
- G.** Cein da zazpigarrena?
- E.** Ez ebastea.
- G.** Cer manatcen zaigu or-

- retan?
- E. Ez quendu, ez iduqui, ez estali, ez nai izatea bertceren gauza, Jabearen borondatearen contra.
- G. Cein da zortcigarrena?
- E. Niori egun eztuen gauzaris ez alchatcea: eta guezurric ez erratea.
- G. Cer manatcen zaigu onetan?
- E. Lagun-proximoaz arintxa erraz gaizqui ez juzgatcea; ta aren uts egutteac ez erratea, ez gozoz enzutea.
- G. Mandamentu au norc ausitcen du?
- E. Arrazoi gabe juzgu charra eguiten duenac, gaizqui erraca dabiltenac, nioren gauza estalia agertu, eta guezurra erraten dutenac.
- G. Bederatcigarten, eta Amargarten Mandamentuan cer debecatzen da?

E. Araguizco atseguiñén
ta nioren ondasunén cu-
ticia, ta nai bide gabéac.
M. Erraitzu Eliza Am-
Sanduco Mandamentuac

*ELIZA AMA SAN-
duaren Mandamentuac
dire bortz.*

*L*Embiccios, Igande, tu
Jaieran Meza osoa en-
zutea.

Bigarrona, Urtean beiz
bedere confesatcea, edo
lenago eriotzaco pelligrú-
ric uste bada, edo co-
mecatu bear bada.

Irugarrena, Pazcoa Gari-
zumacoan comecatcea.

Laugarrena, Eliza Am-
Sanduac manatcen du-
nean barautcea.

Bortzgarrena, Amarrrenac-
ta Primiciac zucen pa-
gatcea.

G. Elizaco Mandamentuac

certaco dire?

E. Jangoicoaren Leguecōac
obequi guardatceco.

M. Erraizu Misericordiaz-
co Obrac.

MISERICORDIAZCO
*Obras dire amalaur : Zaz-
pi Espirituari, ta zaz-
pi Gorputzari da-
gozquionac.*

*Espiritu, edo Arimari da-
gozquionac dire oie.*

LEmbicicoa, ez daquie-
nari eracustea.

*Bigarrena, bear duenari
conseju ematea.*

*Irugarraena, uts eguiten
duenari zuentceco bi-
dea ematea.*

*Laugarrena, bidebagueac,
edo gaitz eguiñac bar-
catcea.*

*Bortzgarrena, trisiéac con-
solatcea.*

Seigarrena, Lagun-progi-moaren atsecabéac, ta argaltasúnac pacienciaz eramatea.

Zazpigarrena, Biciac, ta Illac gatic Jangoicoari otoitz eguitea.

Gorputzari dagozquionac dire ebec.

*L**Enengoa*, eriac bisi-tatcea, edo icustea.

Bigarrena, gose danari ja-tera ematea.

Irugarrena, egarri denari edatera ematea.

Laugarrena, catibúac er-rescatatcea, edo ascatu eraguitea.

Bortzgarrena, billusia jan-citcea.

Seigarrena, bidezco, edo erromesai ostatu ematea.

Zazpigarrena, illac ort-citcea.

Cergatic derizte Obra mi-sericordiazcóac, edo ur-

ricarizcóac?

E. Ceren juzticiaz beti zor ezpaitiran.

G. Noiz becatuaren azpian zor izanen dire?

E. Guizon zur jaquintsuen ustean premia, becartasuna, ta estura andie denean.

LAUGARREN ZATIA.

Ceñetan adierazoten baituren artu bear diren Sacramentúac.

ICusi dugu, nola daquizun cer sinistatu, cer escatu, eta cer eguin bear duzun. Dacuscun orai nola daquizun cer artu bear duzun.

G. Erraitzu Sacramentúac.

E. Eliza Ama Sanduco Sacramentúac dire zazpi. Lembicico bortzac dire nai ta naiezcóac, edo

bear bearrac izeatz, edo
borondatez; ceintzuc ba-
gue salbatu ecin liteque,
uzten baitire naguitasu-
nez, edo zabarqueriez.
Bertee bidac dire boron-
datezcóac.

Lembicicoa, Bataioa.

Bigarrena, Confirmacioa.

Irugarrena, Penitencia, edo
Confesioa.

Laugarrena, Comecadura.

Bortgarrena, Oleadura.

Seigarrena, Ordena.

Zazpigarrena, Ezcontza.

G. Cer gauza dire Sacra-
mentúac?

E. Jesu Cristoc bere Eliza-
ri utzi ciozcan señale
aguirri diren batzuec,
oien bitartez graciac, ta
vertutéac guri emateco.

G. Cer gauza da gracia?

E. Da Jangoicozco Izate-
bat, Guizona Jangoicoa-
ren Seme, ta Céruaren
Jabe-gai eguiten duena.

G. Cer vertute graciarequi

batean ematen dituzte Sa-
cramentuac?

E. Irur enzunénac bertze
gucién artean, eta dire
Vertute Teologilac, edo
Jangoicoa gana zucen be-
giratcen duénac.

G. Cein dire oieç?

E. Fedea, Esperanza, ta
Caritatea.

G. Cer da Fedea?

E. Eztacuscuna sinistatcea,
Jangoicoac ala aguertu
duelaco.

G. Cer da Esperanza?

E. Esperatcea Gloria Jan-
goicoaren laguntasune, ta
gueren ongui eguiñac bi-
tarte diréla.

G. Cer da Caritatea?

E. Onetsitcea Jangoicoa
gauza guiez gañean, ta
guere lagun, edo progi-
moa gueren burúac be-
zala, eguiten diegula,
ebec guri eguitez, nai
guenduquéná.

G. Bataioco Sacramentua

- G.** certaco da?
- E.** Becatu jatorrizcoa, edo Originala, ta bataiatcen dena baitan arquitcen den bertce edocein becatu barcatceco, ta quentceco.
- G.** Cer da becatu Originala, edo jatorrizcoa?
- E.** Gucioc sortcetic dacarguna, ta lembicico Gurasoetatic datorquiguna.
- G.** Certaco da Confirmacioco Sacramentua?
- E.** Bataioan artu guenduen fedeau gu confirmatceco, ta sendoago eguiteco.
- G.** Certaco da Confesioco Sacramentua?
- E.** Bataiatuz gueroz eguin ditugun becatúac barcatceco.
- G.** Cer becatu dire oriec?
- E.** Eriozcoac, edo mortaliac, bai ta venialac ere.
- G.** Cer da becatu eriozcoa, edo mortala?
- E.** Da erratea, eguitea, edo

nai izatea cérbaît Jangoi-coaren Leguearen contra gauza andi, edo aidurran.

G. Cergatic deritza mortala?

E. Ceren eguiten duenaren arima ilten baituen.

G. * Cer bidez barcatzen da becatu mortala?

E. * Confesioko Sacramentuaren bitartez; ta eguiazko contricio baten bitartez, confesatceko go-goaz: baña guero confesatu bear da, contricioarequi barcatu cen becatue.

G. * Eta cembaît gauza bear dire Confesio on bat eguiteko?

E. * Bortz gauza.

G. * Cein díre?

E. * *Lembicicoa*, essamine concienciacoa : au da eguin álaz becatuec gorora ecartea.

Bigarrena, Damu bici bat

artcea. Jangoicoa ofendi-
tu duelaco.

Irugarrena, Propositu, go-
go, ta borondate sendo
bat artcea, becatu gueia-
go ez eguiteco; eta be-
catuzco ocasio, lagun,
ta pelligruetatic ies egui-
teco.

Laugarrena, Becatúac oso-
ro Confesoreari erratca,
gueitu, ta gutitu gabe,
beren neurri, ta circus-
tanciaz.

Bortzgarrena, Confesoreac
ematen duen penitencia
cumpli, edo betetcea.

G. * Essamina, edo con-
cienciaço billacuntza non-
dic eguiten da?

E. * Jangoicoaren Legueco
amar Mandamentuetatic,
bortz Elizacoetatic, ta bat
bederac bere estaduko
eguinvide, edo obliga-
cioetatic.

G. * Cembañ guisatara da
Dolore, edo ñamua?

- E. * Bietara; Contricioa, ta Atricioa.
- G. * Contricioaren icenaz cer aditcen da?
- E. * Aditcen dut, amodioz, ta onetsizco damua : on-damua : damu osoa. Bada da, damua ta urriquia artcea, Jangoico bat ain Ona, ta maitegarrie ofenditu duelaco, proposituaz confesatceco, ta becatu gueiago ez eguiteco.
- G. * Atricioaren icenaz cer aditcen da?
- E. * Aditcen da, calte-damua : bildur-damua. Eta da, damua, ta biotz-mina artcea, Jangoicoa ofenditu duelaco, ceren infernura bota lezaquean: edo Cerua galdu duelaco; edo bere Arima becatuz itsusi duelaco.
- G. * Damu bida oietatic andiago, ta obeago cein da?

E. * Contricioa, edo On-damua.

G. * Cergatic?

E. * Ceren contricio eguiaz
co oso beteac barcatcen
baiitu becatuac, confesatu
baño len, baldin bauica
gogoa guero confesatceco. Baña Atricioa
ecin barcatu dezague con-
fesio on baten bitarte
baicic.

G. * Cergatic gueiago?

E. * Ceren Contricioa sort-
cen baita amodiotic; eta
Atricioa bildurretic.

G. * Propositu, edo gogoa
beste bein becaturic ez
eguiteco, cembat dembo-
raraco ifini bear da?

E. * Betico, ill arteraino,
ta becatu guisa guicietan
emendatceco: bestela ut-
sa da Confesioa.

G. * Becatu mortal bacar
bat alquez, bildurrez, edo
borondatez confesatu ga-

be titciscen duena salva
liteque?

E. * Ez, eta Sandu guciac
baño penitencia, baru,
limosna gueiago eguinien
balu ere.

G. * Becatu venialac, edo
arinac confesatu bear di-
re?

E. * Ongui da, bacic ezta
premiazcoa.

G. * Confesorearen peniten-
cia ez cumplitcea cer be-
catu da?

E. * Nolacoa den peniten-
cia. Andia bada, becatu
mortala. Chiquia bada,
becatu veniala, edo ari-
na.

G. Becatu mortalean erort-
cen den gucian, bereala
confesatu bear ote du ba-
tec, barcatu daquion?

E. On lizaque, bainau ezta
premiazcoa:

G. Cer eguin bear du bida?

E. Bere becatuen damu

eguiazcoa artu , ontceco gogoaz ; ta Eliza Ama Sañduac manatcen due- nean confesatu.

G. Becatu veniala , edo arina cer da?

E. Becatu mortaleraco pres taera bat.

G. Cergatic deritza venia- la?

E. Ceren guizona arin ta errazqui erorteen baitan artan , ta errazqui bar- catcen baizaion.

G. Penitenciako Sacramen- tuaz landara cemba gau- za gatic barcatcen baita becatu veniala?

E. Bederatzi gatic.

G. Cein dire?

Lembicicoa , Meza enzuteaz.

Bigarrena , Comecatceaz.

Irugarrena , Ni becataria erranaz.

Laugarrená , Obispoaren bendicioaz.

Bortzgarrena , Ur bedeica-

tua artuaz.

Seigarrena, Ogui bedeicatuaz.

Zazpigarrena, Aita gurea ettezatuaz.

Zortzigarrena, Sermoia enzunaz.

Bederatzigarrena, Jangoicoari barcacioa escaturic, bularra jotceaz.

G. Certaco da Comecacio, edo Comecaduraco Sacramentua?

E. Bear bezala arturic izan dedin gure Arimén janaria, eta gueitu, edo berretceco gracia.

G. Comecaduraco Sacramentuan cer artcen duzu?

E. Jesu Cristo Jangoico, ta Guizon eguiatzcoa Sacramentu Aldarecoan eguiatz dagoana.

G. * Noiz ipintzen da Jesu Cristo Aldareco Sacramentu Sanduan?

E. * Sacerdoteac consagra-

cioco itzac erraten dituenean.

G. * Eta Sacerdoteac Consagracioco itzac erranez gueroz ote dago Ostian oguiric?

E. * Ez; bacarric daude oguiaren ichura, ta iduria utsac.

G. * Baitago Gorputza baño beste gauzaric?

E. Bai: an dago bere Arima, odola, Jangoicotasa, ta Trinitateco Irur Presunac.

G. * Cer dago Calizan?

E. * Consagratu baicic len, dago ardoa, ta ur puszca bat. Bainaz consagraturuz gueroz itzen vertutez ardoa biurtcen da Cristoren Odol: eta nola Odol au dagoan viciric, an daude Gorputza, Arima, ta Jangoico gucia: baina ez ardoric, baicic onen ichura, ta

iduria utsac.

G. * Ostia Sandua zatitcen denean, zatitcen da Cristoren Gorputza?

E. * Ez, Jaune, ceren danic apurric chiquienean arquitcen da osoz bere Gorputza, eta dago gucia gucian; eta gucia edocein apur-zati baitan.

G. * Cer prestaerac bear dire comecatceco?

E. * Gorputzaren aldetic, gauberditic orduraño baru naturalean egotea.

Arimaren aldetic, grazco estadua, devocioa, cer arteen duen jaquitcea, eta guero esquer ónac ematen guelditcea.

G. Certaco da Oleadurako Sacramentua?

E. Irur gauccetaco.

Lembicicoa, lenagoco vicitza gaistoaren arrasto, ta cutsu gaistoac quentceco.

Ligarrena, demonioaren as-

mo, ta tentacioen contra
Arimari indárrac emate-
co.

Irugarrena, gorputzari osa-
suna conveni bazaio ema-
teco.

G. Certaco da Ordenaren
Sacramentua?

E. Ordenduteco, ta consa-
gratceco Apézac, ta Eliz-
Guizónac.

G. Certaco da Ezcontza,
edo Matrimonioco Sacra-
mentua?

E. Ezcontceco, eta ezcon-
duei gracia emateco, bi-
ci ditecen baquean, ta
uméac Ceruraco azteco.

BECATU CAPITA-
lac, edo bertceen iturburúas,
ta zañac dire zazpi.

*L*embicicoa, Soberbia,
andiuste, edo goitura.

Bigarrena, Cuticia, edo
Avaricia.

Irugarrena, Lujuria, edo desonesqueria.

Laugarrena, Aserradura.

Bortzgarrena, Gula, Sabel-darraiotasuna.

Seigarrena, Envidia, edo icusi ecina.

Zazpigarrena, Naguitasuna, edo Alferqueria.

G. Cergatic deitzen dire Capitalac becatu oie, gueienean mortalac izanic?

E. Ceren ebetatic jaiotzen baitiren bertce becatuac, beren buruetatic bezala; eta ceren diren iturriac, ta besteen zañac. Deitcea berriz mortalac ez dagoquie ain ongui, bada anitctan venialac baicic ez-baitire.

G. Noiz dire mortalac?

E. Noiz eta Jangoicoaren, ta lagun-proximoaren maite-tasun, ta caritatearen contra diren.

G. Eta noiz dire caritatea-

ren contra?

E. Noiz eta oriee gatic Jan-goicoaren , edo Elizaren mandamenturen bat gauza andi aidurran ausitzen dugun.

G. Cer da Soberbia?

E. Bertceac baño gueiago izan nai eragabeco bat.

G. Cer da Cuticia?

E. Da ondasunen nai gueiegui bat.

G. Cer da Lujuria, edo desonesqueria?

E. Gorputzaren atseguin ci-quin , loien naitza eragabeco bat.

G. Cer da Aserradura, edo cólera?

E. Mendécatceco deseo char bat.

G. Cer da Gula?

E. Jateco , ta edateco nai-cunde gueiegui bat.

G. Cer da Envidia?

E. Bertceren Onaren damu, ta icusi ecina.

G. Cer da Naguitasuna?

E. Gauza ónac eguiteco go-go illa izatea.

ZAZPI VICIO OIEN
*- contra daude zazpi Ver-
 tute.*

SOberbiaren contra, Hu-miltasuna.

Cuticiaren contra, Prestu-tasuna.

Luxuriaren contra, Casti-dadea, edo Garbitasuna.

Aserrearen contra, Pacien-cia.

Gularen contra, Templan-za.

Envidiaren contra, Carita-tea.

Naguitasunaren contra, Pres-tasuna.

*ARIMACO ETSAYAC
ceñetatic igues eguin bear
dugun dire irur.*

1. **M**Undua : 2. Demo-
nioa : 3. Araguia.
G. Mundua ganic nola ies
eguinen dugu ?
E. Bere arrotasun, andius-
te, ta vaneriac despre-
ciaturie.
G. Demonioa ganic nola
ies eguinen dugu ?
E. Oracio, ta humiltasu-
naz.
G. Araguia ganic nola ies
eguiten da ?
E. Gorputza eciaz, azpi-
tuaz ; loa ta janaria la-
burtuaz ; griña gaistoa
garaitceaz ; ta pelligruz-
co ocasioetatic guardau-
tuaz. Au da etsairic an-
diena, ceren ecin gueroc
ganic alderatu guenzaque:
Mundua, ta Deabrua bai.

VERTUTE TEOLOGA-
lac, edo Jangoicoa ganonzo
etiac dire irur.

LEmbicicoa, Fedea.
Bigarrena, Esperanza.
Irugarrena, Caritatea.

VERTUTE CARDINA-
lac dire laur.

Lemengoa, Prudencia,
edo Zurtasuna.
Bigarrena, Justicia, edo
Ciuttasuna.
Irugarrena, Sendotasuna.
Laugarrena, Templanza,
edo beguiratua izatea.

GORPUTCECO SENTI-
duac, edo Cenzunac di-
re bortz.

LEmbicicoa, Beguiz icus-
tea.
Bigarrena, Bearriz enzutea.

Irugarrena, Agoz gustu artcea.

Langarrena, Sudurraz usmatcea, edo urriñ eguitea.

Bortzgarrena, Escuz uquitcea.

G. Sentiduac, ta bertcegorputceco zatiac certaco Jangoicoac eman cizquigun?

E. Guciaqui, ta gauza gucietan bera serbitzatceco.

ARIMACO POTEN-
tiac, edo *Almenac di-*
re irur.

1. **M**Emoria, edo Oroi-pena.

2. Adimentua.

3. Borondatea.

G. Memoria certaco Jangoicoac eman cigun?

E. Beraz, ta bere mesedeaz oroi gaitecen.

G. Adimentua certaco eman

cigun?

E. Gure Jaune ezagutceco,
ta gogoan erabilteco.

G. Borondatea certaco eman
cigunt?

E. Ontasun andiena bezala
bera, ta bera gatic la-
gun progimoa onetsitceco.

ESPIRITU SANDUA-
ren Doaiac dire zazpi.

*I*Enengoa , Jaquituria-
ren Doaia.

Bigarkoena, Adimentuaren
Doaia.

Iruigarrena, Conseiuaren
Doaia.

Laugarrina, Jaquindeco
Doaia.

Bortzgarrena, Sendotasu-
naren Doaia.

Scigarrena, Urricalmendu-
co Doaia.

Zazpigarrena, Jangoicoa-
ren Bildurraren Doaia.

Espiritu Sanduaren Frutuas dire amabi.

LEmbicicoa, Caritatea.

Bigarrena, Baquea.

Irugarrena, Biotceco anditasuna.

Laugarrena, Urriquitasuna.

Bortzgarrena, Fedea.

Seigarrena, Continencia, edo beguirapena.

Zazpigarrena, Espirituco atseguin, edo Poza.

Zortzigarrena, Paciencia.

Bederatzigarrena, Ontasuna.

Amargarrena, Berachatasuna.

Amecagarrena, Moduzcotasuna.

Amabigarrena, Castidadea, edo Garbitasuna.

ZORIONTASUNAC
dire zortzi.

1. **Z**orionecóac biotcetic pobre, edo premiadunac, ceren aena baita Ceruco Erreinua.
2. Zorionecóac mansoac, edo berachac, ceren oiec izanen baitiren luraren Jabe,
3. Zorionecóac nigar eguiten duenac, ceren oiec izanen baitiran consolatuac.
4. Zorionecóac Justutasun, edo Zucentasunaren goesta cgarri direnac, ceren ase beteac izanen baitira.
5. Zorionecóac Urricaritsuac, ceren oiec erdietsico duten misericordia, edo urriquitasuna.
6. Zorionecóac biotz garbiacoac, ceren oiec Jangoicoa icusico duten.
7. Zorionecóac baquetstuac, ceren oiec Jangoicoaren

- Seme icendatuco baitiren.
- G.** Zorionecóac Justutasuna gatic perseguituac, ceren oieena izanen dan Ceruco Erreinua.
- G.** Cer orai erran ditugu?
- E.** Zortzi Bienaventuranza, edo Zoriontasúinac.
- G.** Cer gauza dire ebéc?
- E.** Vertuteen, ta Espiritu Sanduaren doaién eguitecoric oberenac.
- G.** Nor dire espiritu, edo biotcez pobreac?
- E.** Onraric, ta aberastrasunic ez andiric, ez chiquiric nai ezdutenac.
- G.** Nor dire mansoac, edo beraac?
- E.** Asererric ezduténac ezta ere casi aren mugui menduric.
- G.** Nola dire mansoac Iuraren Jabe?
- E.** Eren buruaren Jabe izanduaz.
- G.** Nor dire nigartiac?

- E.** Atseguin-contentuac, hecaru ez direnac ere, uzten dituenac.
- G.** Nor dire Justutasun, edo Zuentasunaren gosea, ta egarria duténac?
- E.** Gauza gucietan gogochoil andiarequi dagoquien eguiten duénac.
- G.** Nor dire Urricaritsuac?
- E.** Niori ere on baicic eguin nai ez dizténac.
- G.** Nor dire biotz chau garbidunac?
- E.** Beren griña, ta pasio charrac eci, ta garaitcen dituztenac.
- G.** Nor dire Baquetsuac?
- E.** Baquezco obrac beretgan, ta bertzeetan eguiten dituztenac.
- G.** Nor dire justuqui dabiltzelaco perseguituac?
- E.** Sendo, ta gogor gauza gucietan daudénac, mundutarrac beguitan artu izah arren.

G. Eta cer gatic derizte
oiei Bienaventuranzac,
Doatasunac, Zorion, edo
Dichitasunac?

E. Ceren oietan dagoan,
urrean zorioneacoac iza-
tea, ta Ceruaren uste, ta
esperanza eguiazcoa.

Maissua : Jangoicoac gu-
cioc arat eraman gaitzala.
Amen.

NI BECATARIA:

*Confesio, edo Aitormen
generalia.*

NI becataria confesatzen
naitzaio Jangoico gucia de-
zacanari, Santa Maria beti
Virgiñari, San Miguel Ain-
gueruari, San Juan Bautis-
tari, San Pedro ta San Pau-
lo Apostoluai, Sandu gu-
ciasi, ta Zuri, nere Arima-

co Aita, becatu eguin du-dala, gogoz, itcez, ta obraz; nere culpaz; nere culpaz; nere culpa choil andiaz. Argatic escatcen diot Santa Maria beti Virgiñari, San Miguel Ainguerauari, San Juan Bautistari, San Pedro ta San Paulo Apostoluai, Sandu guciai, ta Zuri, nere Arimaco Aita, erregotu deguiozula ni gatic gure Jaun, ta Jangoicoari. Amen.

Oracio au, ta urrengoa buruz ongui icasi bear dire, errateko maiz, ta batez ere confesatze-orduan.

*ACTO CONTRICIO-
COA, edo. Onceco da-
mua.*

Nere Jesu Cristo Jauna, Jangoico, ta Guizon eguiazcoa, nere Creatzalle ta Errendentorea, Zu cerena gatic, ta ceren maitatcen zaitudan gauza gucien gañean, damu dut, Jaunia; damu dut biotz gucitic Zu ofendituaz: artcen dut borondate sendo bat ez gueiago becaturic eguiteco; eta becatuen bide, ta ocasioetatic alde eguiteco; nere becatuac confesatceco; ta manatcen zaidan penitencia eguiteco. Esquentcen ditzut nere vicitza, neque, ta eguite guciac nere becatuen satisfacioan; uste dut zure Ontasun, ta misericordia fin gabean, barcatuco dizquidatzula zure odol pre-

cioso , Pasio , ta eriotza gatic ; eta emanen didazula gracia , vicitza ontzeco , ta zure serbitzu sanduan irau-teco eriotzaco orduraño . Amen.

* *FEDE , ESPERANZA , ta Caritateco Acto , edo Eguicaias egunoro eguiteco.*

FEDECO ACTA.

Nere Jangoico maitea , Aita , Semea , ta Espíritu Sandua ! Sinistatcen dut centrala Jangoico bacarra irur-Personétan . Sinistatcen dut Jangoicoaren Semea den bigarren Persona egun zala Guizon Espíritu Sandua-ren graciaz : jaio zala María Virgiña ganic ; ta ill zala Gurutcean gu salvatcea gatic : igan cela Ce-

ructara ; ta azquen eguneam etortico dala gucioc juzgatcera, ónai betico Gloria, ta gaistoai betico Infernua emateco.

Alaber sinistatcen dut Al-dareco Sacramentuan dagoala Jesu Cristoren Gorputz eguiazcoa. Sinistatced ditut bertce Eliza Ama Sanduac, Zuc berari erran, ta aguer-turic, sinistatcen, ta eracus-ten dizquidan Sacramentu, Articulu , eta Eguia sinis-garri gucietan. Eta sinistat- ce onetan vici, ta ill nai dut.

ESPERANZACO Acta

O nere Jangoicoa ! Zure Seme Jesusen eriotza , ta merecimentuac bitarteko di-tela ; ta beraren graciarequi eguin-ála eguiten dudala, esperatcen dut Zure Onta-

sin, ta Urricaritasunean ne-
e becatuen barcamendua:
manen didazula Ceruco
Gloria; eta mundu onetán
rat elduteco beat ditudan
gracia guciac.

C A R I T A T E Z C O

Acta.

O nere Jangoicoa! maitat-
en zaitut gauza gucien ga-
jean, ceralaco Ontasun
gucien iturria, ta Izateric
miragarriena. Damu dut
Zu ofendituaz. Damu dut
bioteetic.

Maitatzen ere dut nere
agun progimoa, nere bu-
ua bezala: ta barcatceur
dier nere etsai guciai Zu-
gatic, ta Zure icenean.

* *MAIA BEDEICAT*
zeco Oracioae.

Aitaren , ta Semearen , tu
 Espiritu Sanduaren icenean
 Amen.

Gure Jauna , ta Jangoicoa
 gure esperanza Zugan dago
 ta jateco bear dena Zugan
 ematen duzu. Zure escutic
 zabaldu , ta gucioc bendito
 cioz betetcen gaituzu. *Aita*
gurea ta Ave Maria bat...
Eta guero erranen da:

Doai gucien emalle gu-
 re Jauna , zure escutic gu-
 artu , ta jan bear dugun
 gucia , bedeicazazu , Jesu
 Cristo zurc Semea gatic
 Aitac , Semeac , ta Espiri-
 tu Sanduac gucioc bedei-
 ca gaitzatela ; eta bere Glo-
 riaco Mairá betico eramar
 gaitzatela. Amen.

*TANAREN ONDOAN
esquer onac emateco.*

Aitaren, ta Semearen, ta
Espritu Sanduaren icenean.
amen.

Esquer onac, ta alabanciac ematen dizquitzugu gu-
de Jangoico maitea, orai,
ga beti egun dizquiugutzun
mesede guciac gatic. Zu-
tandic gure ganera istorri
lin bendicio, ta mesede
negatic, mundu guciac
beti alabatu zaitzala.

*Aita gurea, ta Ave Ma-
ria bat; ta guero*

Gure Onguille guciai,
Jaune, Zure bendicio uga-
jiaz pagatu zaiczu, Zure
Icen Sandua gatic: eta Arik-
ma fiel guciai Cerura Zu
alabatcera eramaitzatzu.

*Aita gurea, ta Ave Ma-
ria: ta guero.*

Arima fiel guciai Jan-
goicoac betico Gloria die-
la. *Amen.*

Emen bildu gaituen Jau-
nac berac Ceruco Glorian
gucioc bildu gaitzala. *Amen.*

* *AVE MARIAZ GOI-
cean, Eguerdian, ta Ar-
ratsean Indulgenciaz
irabazteco errazu;*

1. **A**inguerauc berri ónac
Maria Virginari eman,
ta Espiritu Sanduaren
graciaz Semea bere Sa-
belean artu zuan. *Ave
Maria.*

2. Ona emen Jaunaren Ser-
bitzaria : Zure itzaz ba-
ean, nigan eguin bedi.
Ave Maria.

3. Jangoicoaren Semea Gui-

zon eguin cen, ta gure artean vici izandu cen.
Ave Maria.

ORACIOA.

Iguzu otoi, Jaune, gure Arimétan zure gracia, Aingeruac berri onac ecarri, ta Cristo zure Semearen Guizon eguitea ezagutu dugunoc, aren Pasio, ta Gurutzea gatic betico Gloria-ra eramanac izan gaitecen.
 Amen.

AMA VIRGIÑAREN Letañia.

Jauna, urriquia guzaz.
 Cristo, misericordia guzaz.
 Jauna, urriquia.
 Cristo, entzun zaguzu.
 Cristo, aditu gaitzetzu.
 Aita Jangoico Cerucoa.
Urriquia guzaz.
 Seme Jangoico munduaren

	Erredentorea.
	<i>Urriquia guzaz.</i>
	Espiritu Sandu, Jangoicoa.
	<i>Urriquia guzaz.</i>
	Irutasun Sandu, Jangoico bacarra.
	<i>Urriquia guzaz.</i>
	Maria Sandu... Otoitz gu gatic.
	Jangoicoaren Ama San- dua.
	Virgiñeen Virgiña San- O
	dua. T O I Z
	Cristoren Ama.
	Jangoicozco graciaren
	Ama.
	Ama choil chauba.
	Ama guciz Casta.
	Ama becaturic baguea.
	Ama tacharic gabea.
	Ama mancha gabea.
	Ama maitegarrie.
	Ama miragarrie.
	Creatzallearen Ama.
	Salvatzallearen Ama.
	Virgiñe choil Prudenta.
	Virgiñe Onragarrie.

O T O I Z

G U G A T I C.

Virgiñe Laudagarrie.	OTON GU GATIC
Virgiñe Poderosa.	
Virgiñe Beracha.	
Virgiñe Leiala.	
Justutasunaren Ispillue.	
Jaquindudiaren Jarlecue.	
Gure bozcatasuneten Cau- se.	
Ontzi Ispirituala.	
Ontzi Onragarrie.	
Devocioaren Ontzi siña- latue.	
Arrosa Misteriozcoa.	
Daviden Dorrea.	
Dorre bortitza.	
Urrezco Echea.	
Baquearen Cuche.	
Ceruco Atarie.	
Goiceco Izarra.	
Erien Osasune.	
Becatarien Igueslecue.	
Erchi daudenen Cosolat- zalce.	
Cristioen Laguntzee.	
Ainguetuén Erreguiñe.	
Patriarquén Erreguiñe.	
Profeten Erreguiñe.	

Apostoluen Erreguiñe.

Martirién Erreguiñe.

Confesarién Erreguiñe.

Virgiñén Erreguiñe.

Sandu gucien Erreguiñe. &c

OTOLZ,

Jangoicoaren Assuri Munduko becatuec quentzen dituzune.

Barca dizaguzu Jaune.

Jangoicoaren Assuri Munduko becatuec quentzen dituzune.

Entzun gaitzetzu Jaune.

Jangoicoaren Assuri Munduko becatuec quentzen dituzune.

Urricari zaquizquigu Jaune.

* SUB TUUM PRESI-
sidiūm *eusqueraꝝ.*

ZUre Amparora gatoz
Jaincoaren Ama Sandue:
EZ arren premietan des-
precietu gure erregu, otoitz,
ta Escaricc : Baicic O ! Vir-
giñe Lóriosa, ta Bedicatue,
libra gaitzatzu beti peril
guciti.

MAINDIRE SANDUA-
ren Otoitza.

GUre Jangoicoa ! Zure
Pasioco siñalea utzi cini-
guna Mandire Sanduan, ce-
ñetan bildu baizuen Jose-
fec zure Gorputz Sandue,
Gurutzetic jachi zuenean:
Iguzu otoi , Jaun urrica-
ritsue , Zure Eriotza , ta
Obia gati , izan gaitecélá

eramanac Biztzeraco Lorie-
ra , ceñetan bici baicera, ta
manatcen duzun Aita Jan-
goico , ta Espiritu San-
duaz betiroco demboreetan.
Amen.

O. S. C. S. R. E.









